

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ABADIÑOKO UDALAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Abadiñoko Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osokoaren kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzen alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta bere ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, langileen atalean azpimarratzen da Udalak ez duela abenduaren 31n gaurkotutako LZrik eta horren ondorioz, 10 pertsonen lanpostuek ez dutela lege-babesik. Berebat, bi lanpostu aldi baterako betetzeko hautaketa prozesuetan ez direla berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu jakinarazi da.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak dio obra kontratu batean aldaketa handiak egin direla, jatorrizko kontratuaz guztiz bestekoak, eta kostua % 43 garestitu dutela. Horrezaz gain, 0,2 milioi euroren gastuak egikaritu dira, kontratazioan publikotasuna eta gardentasuna bermatuko duten prozedurak gauzatu gabe.

Udal kontuei buruzko iritziaren atalean txostenak dio kontuek ederki islatzen dutela udalaren jarduera, nahiz hainbat doiketa jasotzen dituen Diruzaintza Geldikinean, 0,3 milioi euroan gehitu dutenak 1,8 milioi euroren kopurua osatuz; eta Egoeraren Balantzeko Funtz Propioetan, 6,9 milioi euroan murriztu dituztenak, batik bat ibilgetua egoki erregistratu izanaren ondorioz. Nolanahi den ere, Funtz Propioak 39,3 milioi euroan eusten diote.

Iritziaren atalak, berebat, zalantza egoera jaso du Udalak Bizkaiko Nahitaez Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiaren ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsuari dagokionez, desadostasunak izan dituelako jabeari ordaindu beharreko prezio justuan.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2011ko ekitaldian aurrezki garbi positiboa eskuratu dela jakinarazten da, zeinak Diruzaintza Geldikinarekin batean aurreko ekitaldietakoa baino inbertsio programa txikiagoa finantzatzeko bide eman duen; berebat azpimarratu da, itzultzeko dauden Udalkutxaren likidazio negatiboak barne hartuta, zorpetze mailak kitatutako diru-sarrera arrunten % 43 egin duela.